



KORONAVIRUSAREN KRISIAREN AURREAN, EUSKAL ELKARTASUN SAREA

Elkartasuneko ekimen ugari dago, eta Andoain horren adibide argia da, adinekoei edo talde zaugarriari oinarrizko eta behar-beharrezkoak diren lanak (erosketak, etab.) egiten laguntzeko garaian. Horregatik, Eusko Jaurlaritzak erabaki du zentralizatzea eta koordinatzea laguntza emateko boluntarioen eskaerak, bai eta gizarte-laguntzarik ez dutelako zaugarri izan edo arriskuan dauden giza-taldeenak ere.

Eskerrak eman nahi dizkiegu une zail hauetan laguntzeko borondatea adierazi duten udalerriko pertsona guzti-guztiei, eta, era berean, aitortu behar dugu erantzun eraginkorra emateko beharrezkoa dela modu antolatuan egitea, arreta jaso behar dute giza-taldeen zein boluntarioen osasuna zainduz.

Horregatik, eta ahalik eta erantzun eraginkorrena emateko asmoz, Eusko Jaurlaritzak "Guztion Artean" elkartasun-sarea sortu du erakunde publikoen, Gurutze Gorriaren, Caritasen eta hirugarren sektoreko beste erakunde batzuen artean, betiere Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren gidalerroei jarraituz.

Sarearen helburua da lantresna bakar bat bultzatzea euskal biztanleriari zaugarrienaren beharrak bideratzeko eta inork nahi ez dituen kalteak saihesteko; ez kalterik egoera zaugarrian daudenentzat, ezta laguntza eman nahi duten boluntarioentzat ere.

Horregatik, **70 urtetik gorako herritarra baldin bazara eta egoera zaugarrian baldin bazaude**, sintomarik ez baduzu (sukarra edo arnas arazoaren sintomak, bereziki eztul lehorra edo arnasa hartzeko zailtasuna), familiaren laguntzarik ez baduzu baina laguntza behar baduzu, dei egin dezakezu **945 222 222** edo **688 662 773** telefonoetara.

Boluntario gisa lagundu nahi baduzu, baldintza hauek bete behar dituzu:

- **Adina:** 17 urtetik gora eta 65 urtetik behera izatea.
- **Prestasuna:** nahikoa datorren hilabetean (gutxienez bi edo hiru ordu, astean bi edo hiru egun), pertsona batek edo, salbuespeneko kasuetan, bik (ez gehiagok) etxe bat zaindu ahal izateko.
- **Osasun-egoera:** sukarrak edo arnas sintomarik ez duten pertsonak, bereziki eztul lehorra edo arnasa hartzeko zailtasuna. Esku-hartze bakoitzaren aurretik tenperatura hartze bat egingo da, eta ezingo da 37 gradutik gorakoa izan.
- **Patologia kronikorik gabe:** diabetesa, kardiopatiak, arnas gutxiegitasuna, immunogutxitzaileekin tratamenduan egotea, etab.



Andoaingo Udala

- **Gaikuntza:** herritar guztientzako gomendioak irakurtzea eta ikustea, baita etxez etxeko laguntzarako boluntarioentzako jarraibide espezifikoak ere, Osasun Sailak ezarritakoak.
- **Gertutasuna:** bere bizilekuak artatutako pertsonen bizilekutik hurbil egon behar du (auzo berean edo ondoko auzoetan, udalerrri berekoak edo mugakideak).
- **Erakundearekiko lotura:** erakundearekiko etengabeko harremana, haren jarraibideei erantzutea eta ekintza bakoitzaren gauzatzearen berri ematea, eta, hala badagokio, antzemandako egoera edo beharrak jakinaraztea.
- **Boluntariotzaren arloko araudia betetzea eta,** bereziki, bermatzea pertsona horiek uneoro erakundeek kontratatutako Erantzukizun Zibileko eta Istripuetako aseguruaren estaldura izango dutela.

Baldintza horiek betetzen dituzulakoan baldin bazaude eta boluntario bezala parte hartu nahi baldin baduzu

- Deitu 945 22 22 22 telefonora (Gurutze Gorria) edozein unetan (24 ordu).
- Edo jarri harremanetan Caritasekin (688 662 773).

Andoain, 2020ko martxoaren 18a



ANTE LA CRISIS DEL CORONAVIRUS, RED DE SOLIDARIDAD VASCA

Ante el importante número de iniciativas solidarias, del que Andoain es un claro ejemplo, para apoyar a personas mayores o colectivos vulnerables en realizar tareas básicas y estrictamente necesarias como compras, etc., el Gobierno Vasco ha acordado centralizar y coordinar, tanto las peticiones de las personas voluntarias, como también las de colectivos vulnerables y de riesgo, sin apoyo social.

Queriendo transmitir nuestro agradecimiento a todas y cada una de las personas del municipio que han manifestado su voluntad para colaborar en estos difíciles momentos, también es necesario reconocer que, para abordar una respuesta eficaz, es necesario realizarlo de una manera organizada, preservando la salud tanto de los colectivos a atender, como de las personas voluntarias.

Por ello y con el objetivo de dar una respuesta lo más eficaz posible Gobierno Vasco ha creado la Red de Solidaridad “Guztion Artean”, entre Instituciones públicas, Cruz Roja, Caritas y otras entidades del tercer sector, siempre bajo las directrices del Departamento de Salud del Gobierno Vasco.

La Red tiene por objetivo impulsar una única herramienta que canalice las necesidades de la población vasca más vulnerable, evitar perjuicios innecesarios tanto para ellos como para las personas voluntarias que deseen prestar ayuda.

Por ello, **si eres una persona mayor de 70 años o vulnerable, sin síntomas** (febrícula o síntomas respiratorios, especialmente tos seca o dificultad respiratoria), careces de apoyo familiar y necesitas ayuda, puedes llamar a los teléfonos **945 222 222** o al **688 662 773**.

Si quieres colaborar como persona voluntaria debes cumplir los siguientes requisitos:

- **Edad:** Más de 17 y menos de 65 años.
- **Disponibilidad.**
- **Estado de salud:** sin febrícula ni síntomas respiratorios, especialmente tos seca o dificultad respiratoria.
- **Sin patologías crónicas.**



Andoaingo Udala



- **Capacitación:** lectura y visionado de las recomendaciones.
- **Proximidad:** lugar de residencia cercano al de la persona atendida.
- **Vínculo con la organización:** contacto permanente con la organización.
- **Cumplimiento de la normativa en materia de voluntariado:** estas personas estarán cubiertas por seguros de responsabilidad civil y accidentes contratados por las organizaciones.

Si consideras que cumples dichos requisitos y quieres participar como persona voluntaria

- Llama a 945 222 222 (Cruz Roja) durante las 24 horas del día.
- O ponte en contacto con Cáritas (688 662 773).

Nuevamente agradecer todas las manifestaciones de apoyo que se han dado en nuestro municipio.

Andoain, 18 de marzo de 2020